



Gurutze Ezkurdia Arteaga bilbotarra hezkuntzaren saila etengabe lantzen diharduen horietakoa dugu, aspalditxotik euskal curriculumaren ingurumari dabilena. Hezkuntza ez-formalean ezagutza sakonak ditu, ume eta gaztetxoan aisialdia euskara hutsean suspertzeko asmoarekin sortu zuten "Izar Berri" taldean hamar urte luzez lan egina baita.

Lehen Hezkuntzako irakasle bezala urte batzuk egin ondoren, egun Bilboko Irakasle Eskolan ari da irakaskintza eta ikerketa lanetan Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailean.


Liburu honetan identitatearen eraikuntzan inguruneak eta curriculumak duten eragina eta zeregina aztertzen da, ikergetzat XX. mendean Euskal Herrian erabili izan diren 5. mailako testuliburuaren edukia hartuz. Hemen historiarekin eta lurraldearekin zerikusia duten zenbait aldagai nola erabiltzen diren azaltzen da, hala nola pertsonaiak, monumentu historikoak, kromogramak, lurraldea, eta mapak.

Ondorioak? Askoren artean, bat, identitatearen eraikuntzan espazioa eta denboraren kontzeptuek lurralde eta historia gaietan duten garrantzia benetan nabarmena dela. Eta bi, espazio-denboraren egituraketan Estatuaren eragina, etengabekoa izateaz gain, biziki indartsua dela, paradoxikoa badirudi ere, aro autonomikoan gero eta indartsuagoa. Testuliburuetan agertzen den XX. mendeko Euskal Herriak gero eta irudi zatikatu eta nahasiagoa eskaintzen dio euskal ikasleari, auzo-estatuarekin gero eta korapilatuagoa. Historia? Iduri du historiarik ere ez dugula.

Euskal Herrian irakaskuntzan ari denak eta, batez ere, euskal identitatearen sustriak ingurunearen ikuspegitik arakatu nahi dituenak datu interesgarri asko atzemango ditu Gurutze Ezkurdiairen saio akademiko honetan. Ziur!



ISBN 849332707-7



9 788493 32707 1